

KALEKO ARTEEN BALIO SOZIALA



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura



artekale
Euskal Herriko Kale Arteen Elkarte
Asociación de Artes de Calle del País Vasco



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGUISTICA

KALEKO ARTEEN BALIO SOZIALA

Elkarlanean ARTEKALEREkin

Azterlanaren laburpena

Azterlanaren laburpena (hainbat hizkuntzatan) 3

Aurkezpena 7

1. Balio soziala: kontzeptua eta inplikazioak 8

2. Sektorea testuinguruan 10

2.1. Bilakaerari begirada bat 10

2.2. Sektoreari begirada bat 11

2.2.1. Jarduera: produkzioa eta programazioa 13

2.2.2. Enplegua 16

2.2.3. Dimentsio ekonomikoa 17

3. Kaleko arteen ezaugarriak eta balio soziala 19

3.1. Beren kodeari dagokionez 19

3.2. Espazio publikoari dagokionez 20

3.3. Publikoari dagokionez 20

4. Pandemiaren inpaktua 22

4.1. Eskaintzaren aldagaiak 22

4.2. Eskariaren aldagaiak 24

5. Etorrizuneko erronkak 25



AZTERLANAREN LABURPENA

Zein da kaleko arteen balio soziala? Zer dute berezi sorkuntza edo kreaio horiek, balio sozialaren kontzeptuarekin lotzea errazten duena? Azterlan honekin galdera horiei erantzun nahi diegu **Artekale Euskadiko Kaleko Arteen Elkartea** osatzen duten agenteekin elkarlanean, eta elkarte horretako bazkideen artean egindako inkestaren datuak baliatuko ditugu sektorea testuinguruan jartzeko.

Artekaleko kide diren konpainien artean, ibilbide luzeko proiektu historikoak dauzkagu, eta beste proiektu berriago batzuk ere bai. Gehienek antzerkian dihardute, baina diziplina anitzekoek ere garrantzi handia dute. Dantza- eta zirku-konpainiak ere badaude. Lotutako festibalek harrera ona izaten dute, eta arte horiekin interesatutako publiko bat erakartzen dute. Denborarekin ikuskizunak finduz joan dira: lehen formatu handikoak eta kalejirak ziren nagusi; orain, berriz, bisualetik eta soinuetatik haratago doazen proposamenak aurkezten dira, dramaturgia eta narratiba gehiagorekin. Hizkuntza berriak daude, pixkanaka hazi direnak programazioen eta ikuskizunen teknifikazio-maila handiagoaren eskutik.

Konpainia guztien produkzio-jarduera historikoan 362 ikuskizun biltzen dira; urtean 1.200 emanaldi izaten dira, gutxi gorabehera, eta 360.000 ikusle. Hamar emanalditik sei Euskal Herrian izaten dira. Festibalei dagokionez, 87 edizio dira guztira, eta kaleko 1.917 ikuskizun programatu dituzte. Euskal konpainien emanaldien % 12 dira guztira. Nabarmenezkoa da festibalek publikoa sortzeko egiten duten lana. Konpainia gehienak txikiak dira, eta 2 kide izaten dituzte normalean. Diru-sarreraren bolumenari dagokionez, guztira 2,9 milioi bildu zituzten 2019an.

Balio soziala kultura-esperientzia esanguratsuekin lotzen da, ekonomiarentzat, gizartearentzat edo ingurumenarentzat ere esternalitate positiboak dakartzatenak. Kaleko arteak kreaio eszenikoak dira, espazio publikoan antzezteko asmatu direnak. Horrek kode propio bat ematen die, tokiak eta publikoarekin ezartzen den harreman motak baldintzatua.

Kodeari dagokionez, arte biziak dira, bat-batekoak, errealaren eta fikzioaren artean jolasean dabiltzanak. Emanaldi bakoitza bakarra da, beti desberdina. Zenbait diziplina eszeniko konektatzeko gaitasuna dauka. Bestetik, espazio publikoa xede jakin baterako okupatzea dakarte. Jabetze hori errebindikazioa ere bada, eta komunaren, publikoaren eta kolektiboaren garrantzia nabarmentzea dakar. Guztiona den espazioan elkarrekin egotea da. Eraldatzaileak dira, eguneroko bizitza eta jarduera aldarazten duten heinean. Komunitarioak dira: taldean ikusten, bizitzen eta gozaten dira. Eskuragarriak dira, jendearen tokian daude, jendearen bila doaz. Klean ez dago inolako oztoporik: ez fisikorik, ez ekonomikorik, ez psikologikorik, ezta hezkuntza edo adinari lotutakorik ere. Ez da garestia, ez da zaila, ez da zertan planifikatu, ez dute alde aurreko prestakuntzarik edo itzulpenik eskatzen. Horregatik, jendea prestuago dago probatzeko eta seduzitzen uzteko.

Publiko guztietarako dira. Belaunaldi eta klase desberdinetako jendea biltzeko eta nahasteko gai dira. Feed-back ugariko proposamenak dira. Publikoarekin alde aurretik ezer ere hitzartu ez denez, publikoa harrapatu egin behar da, interpelatu, ikuskizunarekin bat egin dezala saiatu. Gero modulatu egiten da, gertatzen denaren arabera. Etengabeko interakzio horretara gonbidatzen da, eta, ikuskizunak aurrera egin ahala, interakzio hori aldatzen da. Dinamika horrek oso energia berezi bat sortzen du, eta jendeak asko estimatzen du hori.

Pandemiak distantzia- eta segurtasun-arau batzuk ezarri ditu, kaleko arteen kodearen eta formatu naturalaren kontra doazen neurriak. Nolanahi ere, gauza positibo batzuk ere azpimarratu behar dira, areago kaleko arteen balio sozialari buruzko azterlan batez ari garela aintzat hartuta. Horietako askok ikusleen portaerarekin eta erreakzioarekin dute zerikusia, baita agente programatzaile eta konpainiek jarduera suspertzeko egindako esfortzu eta inplikazioarekin ere.

Txostena ixteko atalean, kaleko arteek epe laburrean aurre egin beharko dieten erronka nagusiak identifikatu nahi izan dira. Balio-kate osoari eragiten dioten gaiak dira: prestakuntza, produkzio-eredua, banaketa-eredua, programazioa eta publikoak.

RESUMEN DEL ESTUDIO

¿Cuál es el valor social de las artes de calle? ¿Qué tienen de singular estas creaciones para vincularlas con el concepto de valor social? Este estudio trata de responder a estas preguntas en colaboración con los agentes que forman parte de Artekale, la Asociación de Artes de Calle de Euskadi y con los datos de la encuesta realizada entre sus asociados, que ayuda a contextualizar el sector.

Entre las compañías asociadas a Artekale, conviven proyectos históricos de largo recorrido con otros más recientes. La mayoría se dedica al teatro, aunque las multidisciplinares tienen un peso notable. Hay también compañías de danza y de circo. Los festivales asociados gozan de buena salud y cuentan con un público interesado en estas artes. Los espectáculos se han ido refinando: antes primaban los grandes formatos y los pasacalles, ahora se presentan propuestas que van más allá de lo visual y lo sonoro, con más dramaturgia y narrativa. Hay nuevos lenguajes que han ido creciendo con las programaciones y mayor nivel de tecnificación en los espectáculos.

La actividad productiva histórica de todas las compañías alcanza 362 espectáculos, realizan en torno a 1.200 actuaciones anuales y congregan a 360.000 espectadores. Seis de cada diez representaciones tienen lugar en el País Vasco. Los festivales, suman 87 ediciones y un total de 1.917 espectáculos de calle programados. Suponen el 12 % de las actuaciones de las compañías vascas. Es importante considerar la labor que hacen los festivales en cuanto a generación de públicos. La mayoría son compañías pequeñas, siendo lo más habitual la presencia de 2 componentes. En cuanto a su volumen de ingresos, alcanza un total de 2,9 millones en 2019.

El valor social se vincula a las experiencias culturales con significado que, además, generan externalidades positivas en términos económicos, sociales o medioambientales. Las artes de calle son creaciones escénicas concebidas para representarse en el espacio público. Esto les dota de un código propio, marcado por el lugar y por el tipo de relación que se establece con el público.

Respecto a su código, son un arte vivo, espontáneo que juega entre lo real y la ficción. Cada función es única, siempre distinta. Tiene la capacidad de conectar diversas disciplinas escénicas. Por otra parte, son una ocupación intencionada del espacio público. Esa apropiación contribuye a reivindicarlo y a poner el foco en la importancia de lo común, de lo público y de lo colectivo. Es estar juntos en el espacio de todos. Son transformadoras porque cambian la actividad y la vida cotidiana. Son comunitarias: se ven, se viven y se disfrutan en grupo. Son accesibles, están en el lugar de la gente, van a su encuentro. En la calle no hay barreras de ningún tipo: ni físicas, ni económicas, ni educativas, ni psicológicas, ni de edad. No es caro, no es difícil, no hace falta planificarlo, no requieren preparación previa ni traducción. Esto hace que las personas estén más dispuestas a probar y a dejarse seducir.

Su público son todos los públicos. Tienen capacidad de congregarse y de mezclar a diferentes generaciones y a todas las clases. Son propuestas con mucho feedback. Como el público no está pactado de antemano hay que atraparlo, interpellarlo, hacerle participe del espectáculo. Se va modulando en función de lo que va sucediendo. Hay una invitación a esa interacción continua que varía a lo largo del espectáculo. Esta dinámica genera una energía muy especial que el público valora.

La pandemia ha impuesto normas de distancia y seguridad que contravienen el código y el formato natural de las artes de calle. En todo caso, hay cuestiones que se deben subrayar en positivo, máxime en un estudio sobre el valor social de las artes de calle. Muchas de ellas tienen que ver con el comportamiento y la reacción del público, además del esfuerzo e implicación de los agentes programadores y de las compañías por recobrar la actividad.

El informe se cierra con un apartado dedicado a identificar los principales retos que se plantean a las artes de calle en un futuro próximo. Son cuestiones que afectan al conjunto de la cadena de valor: la formación, el modelo productivo, la distribución, la programación y los públicos.



STUDY ABSTRACT

What is the social value of street arts? What is so special about these creations to link them with the concept of social value? This study aims to answer these questions in collaboration with the agents forming part of Artekale, the Basque Country Street Arts Association, and with data gathered from the survey carried out among its associates, which help to provide context for the sector.

Long-term historical projects co-exist with more recent ones among the companies associated with Artekale. The majority are devoted to theatre, but multidisciplinary companies also have a notable presence. There are also dance and circus companies. The associated festivals are in good health and have an audience interested in the arts. Shows have undergone continual refinement: earlier on, large format shows and street parades had the greatest presence, but now there are proposals that go beyond sound and vision, with a greater presence of dramaturgy and narrative. There are new languages that have undergone growth in terms of bookings and the greater technical level of the shows.

The historic production activity of all the companies amounts to 362 shows. Around 1,200 performances are given annually and they bring together 360,000 spectators. Six out of every ten performances take place in the Basque Country. Festivals amount to 87 editions and account for a total of 1,917 scheduled street shows. They account for 12% of performances by Basque companies. It is important to consider the work done by festivals in terms of generating audiences. The majority of companies are small, with 2 being the most common number of members. Income volume reached 2.9 million in total in 2019.

Social value is linked to cultural experiences with meaning which, in addition, generate positive externalities in economic, social and environmental terms. Street arts are performing arts creations conceived to be executed in public spaces. This gives them their own code, marked by the place and the type of relationship established with the audience.

With regard to their code, they are a living, spontaneous form of art playing with the relationship between the real and fictitious. Each performance is unique. They are always different. They have the ability to connect diverse performing arts disciplines. Meanwhile, they are an intentional occupation of public space. This appropriation vindicates them and places the focus on the importance of commonality, the public and the collective. It involves being together in space belonging to everybody. The shows are transformational because they change daily life and activities. They belong to the community: they are seen, they are a living experience, and they are enjoyed as part of a group. They are accessible, they take place where the people are, they go out to meet people. There are no barriers of any type in the street: neither physical, financial, educational, psychological nor age-related. It is not expensive. It is not difficult. There is no need for planning. They do not require prior preparation or translation. This means that people are more inclined to give them a go and allow themselves to be convinced.

All audiences are their audience. They have the ability to gather people together and mix different generations and all social classes. They generate a great deal of feedback. Because the audience is not agreed beforehand, they must be captured, implored, made participants in the show. Variation takes place in accordance with what happens. There is an invitation to participate in that continuous interaction that varies throughout the duration of the show. This dynamic produces a very special energy which is highly valued by the audience.

The pandemic has imposed distance and safety rules which contravene the natural code and format of these street arts. In any case, there are positive aspects to be highlighted. A study regarding the social value of street arts is vital. Many of these aspects are connected with the audience's behaviour and reaction, as well as the effort and involvement of the booking agents and companies to restart activities.

The report closes with a section devoted to identifying the main challenges for street arts in the near future. They are matters affecting the entire value chain: training, the productive model, distribution, scheduling and audiences.

RÉSUMÉ DE L'ÉTUDE

Quelle est la valeur sociale des arts de la rue ? Qu'est-ce que ces créations ont de si singulier pour qu'on les associe au concept de valeur sociale ? Cette étude tente de répondre à ces questions en collaboration avec les acteurs d'Artekale, l'association des Arts de la Rue du Pays basque espagnol, et à partir des données obtenues de l'enquête réalisée auprès de ses adhérents, qui contribue à contextualiser le secteur.

Au sein d'Artekale, des projets historiques cohabitent aux côtés d'initiatives plus récentes. La plupart des compagnies se consacrent au théâtre, malgré le poids notable des groupes multidisciplinaires. L'association accueille aussi des compagnies de danse et de cirque. Les festivals associés jouissent d'une bonne popularité, avec un public intéressé par ces arts. Les spectacles se sont diversifiés : les grands formats et les défilés qui étaient autrefois privilégiés, se complètent aujourd'hui de propositions qui vont au-delà du spectacle visuel et sonore, avec davantage de dramaturgie et de narration. De nouveaux langages se sont développés au fil des programmations, parallèlement à une augmentation du niveau de technicisation des spectacles.

L'activité de production de l'ensemble des compagnies atteint à ce jour 362 spectacles, avec environ 1.200 représentations par an et 360.000 spectateurs. Six représentations sur dix ont lieu au Pays basque. Les festivals totalisent 87 éditions, avec un total de 1.917 spectacles de rue programmés. Ils représentent 12 % des spectacles des compagnies basques. Il est important de considérer le travail des festivals en termes de génération d'audience. La plupart des compagnies basques sont des petites entreprises, qui habituellement ne comptent pas plus de 2 membres. Quant au volume de revenus, il a atteint 2,9 millions en 2019.

La valeur sociale est liée aux expériences culturelles porteuses de sens qui génèrent aussi des externalités positives du point de vue économique, social ou environnemental. Les arts de la rue sont des créations scéniques conçues pour être représentées dans l'espace public. Ce qui les dote d'un code propre, marqué par le lieu et par le type de lien qui se crée avec le public.

En ce qui concerne leur code lui-même, ils sont un art vivant et spontané qui évolue entre réalité et fiction. Chaque représentation est unique, toujours différente. Les arts de la rue ont le pouvoir de connecter diverses disciplines scéniques. Et par ailleurs, ils constituent une occupation intentionnelle de l'espace public. Cette appropriation contribue à revendiquer cet espace et à se focaliser sur l'importance de ce qui est commun, de ce qui est public et collectif. C'est être ensemble dans l'espace de tous. Les arts de la rue sont transformateurs parce qu'ils changent l'activité et la vie quotidiennes. Ils sont communautaires : ils sont vus, vécus et appréciés en groupe. Ils sont accessibles, ils sont là où se trouvent les gens, ils vont à leur rencontre. Dans la rue, il n'y a aucun type de barrières : ni physiques, ni économiques, ni psychologiques, ni d'âge. Ce n'est pas cher, ce n'est pas difficile, il n'y a pas besoin de planification, ni de préparation ou de traduction. De ce fait, les personnes sont plus enclines à essayer et à se laisser séduire.

Leur public, c'est tous les publics. Ils ont la capacité de rassembler et de mélanger différentes générations et toutes les classes. Leurs propositions sont génératrices de feedback. Comme le public n'est pas convenu à l'avance, il faut l'attraper, l'interpeler, le faire participer au spectacle. Celui-ci se module en fonction de ce qui se passe. Il y a une invitation à cette interaction continue qui varie tout au long du spectacle. Cette dynamique crée une énergie toute particulière que le public valorise.

La pandémie a imposé des règles de distanciation et de sécurité qui vont à l'encontre du code et du format naturel des arts de la rue. Quoi qu'il en soit, certaines questions méritent d'être soulignées positivement, encore plus dans une étude sur la valeur sociale des arts de la rue. Beaucoup de ces questions ont à voir avec le comportement et la réaction du public, en plus de l'effort et de l'implication des programmeurs et des compagnies pour reprendre leurs activités.

Le rapport se termine par une section consacrée à l'identification des principaux enjeux qu'auront à affronter les arts de la rue dans un avenir proche. Des enjeux qui affectent l'ensemble de la chaîne de valeur : la formation, le modèle productif, la distribution, la programmation et les publics.

AURKEZPENA

Azterlan hau, Artekale Euskadiko Kaleko Arteen Elkartearen eta Kulturaren Euskal Behatokiaren arteko lankidetzaren emaitza da. 2004az geroztik, Artekale sektorea sustatu, bultzatu, ikusarazi eta duintzeko zereginetan ari da. Kaleko arteen agente publiko eta pribatuen elkargunea izateko sortu zen elkartea, eta hainbat konpainia, programatzaile eta banatzailez osatua dago. Bestetik, Kulturaren Euskal Behatokia sektorearen eskarietara irekitako leiho bat da, eta bere ezagutza baliatu nahi du kultura-sektoreetan sor daitezkeen informazio- eta hausnarketa-premiei erantzuteko.

Lankidetzaren amaieran sortu zen, Artekalek Kulturaren Euskal Behatokiari eskatu zionean Kaleko Arteen inpaktu globalari buruzko azterlan bat egiteko eta sektorearen gaineko informazio-bilketaren hobekuntzarako orientazioa emateko. Aldian-aldean elkarteak bere kideak elkarriketatzen ditu, egiten duten jarduerari, enpleguari eta sortzen duten dimentsio ekonomikoari buruzko informazioa biltzeko. Helburua da begirada kuantitatibo hori hausnarketekin osatzea, hain zuzen ere, kaleko arteek balio sozial berezi bat izatea ahalbidetzen duten ezaugarri propioen gaineko hausnarketekin.

Azterlana egiten ari ginela, pandemia agertu zen ustekabean. Azterlana garatzeko aurreikusitako programa atzeratzeaz gainera, inpaktu handia izan du sektorean, hausnarketan parte hartu duten pertsonen iritzietan eraginez, ezinbestean. Gai horrek sektorearen oraina baldintzatzen du, eta eragina izango du etorkizun hurbilean. Funtsezko gaia ez bada ere, heldu egin behar zaio ezinbestean, kaleko arteen balio sozialaren berezko elementuetan eragina duen neurrian.

Txosten honek bi informazio-iturri izan ditu: Artekaleko bazkideei egindako inkesta (2019ko datuak baliatu dira), eta konpainia, programatzaile eta banatzaileen iritzia biltzeko lan kualitatibo bat, sakoneko elkarriketen eta eztabaida-taldeentz bitartez egin dena. Guztira 33 ageri n tek hartu dute parte inkestan: 26 konpainia 6 festibal eta banatzaile bat¹. Galdesorta *online* banatu da.

Ikerketa kualitatiboa 2020ko abenduan eta 2021eko urtarrilean egin zen, eta horretarako sakoneko bederatzi elkarriketa indibidual egin ziren eta bi eztabaida-talde antolatu, bost agenteren parte-hartzearekin. Hiru Lurralde Historikoetako hiru festibaleko ordezkariak, bi banatzailek eta bederatzi konpainiak hartu dute parte.

1. Ezin dugu estatistika-informaziorik eskaini, datuak babesteko arrazoiak tarteko.

1. BALIO SOZIALA: KONTZEPTUA ETA INPLIKAZIOAK

Kaleko arteen balio sozialaren gaineko azterlana aurkeztean horixe izan zen, hain zuzen, planteatu zen lehen galdera: zer esan nahi dugu balio sozialaren kontzeptua aipatzen dugunean? Eta atal honetan ahaleginduko gara galdera horri erantzuna ematen.

Artekalerezat gaia ez da berria, gure hausnarketen jomugan egon delako azken urteotan antolatu ditugun → **Jardunaldietan**. 2017. urtean egindako jardunaldietan jada eztabaidatu genuen kaleko arteen balio sozialaren gainean Arteen sukaldea izeneko programaren esparruan, eta dekalogo bat zabaldu zen, haien osagai nagusiak identifikatuz. Kaleko arteentzat ere ez da gai berria, azokei buruzko azterlanak egin baitira. Bestetik, Behatokiak zenbait gai aztertu ditu, hala nola laguntza publikoen → **itzulera soziala**, → **inpaktuen** neurketa edo → **kulturaren balio publikoa**.

Hori esan ondoren, komenigarria litzateke kulturaren balio sozialaren ideia sortu zen testuinguruan kokatzea, harrezkero nola bilakatu den ikusteko. Kulturaren balio sozialaren ebaluazioa eta azterketa 1980ko hamarkadan sortu zen, eta bi noranzkotan garatuz joan da: batetik, haren esternalitate positiboak azpimarratzen dira, eta, bestetik kulturaren balio publikoaren kontzeptuan jartzen da arreta.

Lehen multzoan burutu diren analisiek kultura-politiken balioa nabarmendu nahi izan dute, gizarteak garatzeko eragileak diren heinean. Kulturaren esternalitateetan oinarritzen dira, beste politika publiko sektorial batzuen helburuak garatzen laguntzeko duten gaitasuna azpimarratuz. Planteamendu horrek kultura-ekintzaren begirada instrumental bat dakar, eta, gehienetan, kulturaren existentzia legitimatzea bilatzen da, kulturak kanpo-helburuak (garapen ekonomikoa, enplegua, ingurunearen hobekuntza...) lortzeko betetzen duen zeregin garrantzitsua balioan jarriz. Kultura-politiken esternalitateen dimentsio sozialaren ikuspegitik, arreta teorikoa eta hurbilketa praktikoak hiru eremutan ardatzen dira normalean: gizartea, ingurumena eta osasuna.

Kulturaren balio publikoari buruzko analisiek osatzen dute bigarren korrante teorikoa, kulturaren balio instrumentala ukatuz eta kulturari lotutako balio ukiezinak eta esperientzia identifikatu eta aztertu beharra defendatuz. Ikuspegi horren arabera, kultura berez balioesteko mekanismoak ezarri behar dira, politika publikoaren beste eremu batzuekiko nahitaezko harremanetatik edo errealitate ekonomiko eta sozialetik urrunduz.

Analisi-lerro horren arabera, kultura ondasun publiko bat da, herritarrei mesede egiten diena; horrenbestez, ondorioztatzen den itzulera soziala esternalitateari nagusitzen zaio, eta kultura-ekintzaren funtsezko osagaia da. Aurrekoa ez bezala, balio publikoan zentratzen da eta ez inpaktuan, kultura-politiken onuren zeharkako elementuak identifikatuz esternalitateak edo gaitasun instrumentalak alde batera utzita.



Behatokiak hainbat ikerketatan jaso duen planteamendu horretatik balioa ebaluatzeko dimentsio anitzeko eredu bat planteatzen da, hiru ardatzetatik abiatuta: kultura-esperientzien berezko balioa; balio instrumentala, kultura-proiektuek dakarten onura ekonomiko, sozial eta ingurumenekoen eta ongizatearen ondorio dena; eta balio sozial partekatua, kultura-erakundeek balioa sortzeko sortzen dituzten prozesu, metodo eta lan-egiturei loturik.

— **Berezko balioa: kulturak gudan eragiteko duen gaitasunean eta ahalmenean datza.** Ikuspuntu intelektual, emozional eta espiritualetik kulturaren esperientzia subjektiboekin lotuta dauden balioen multzoa da, esperientzia horiek lotu egiten gaituen jakintza-funts komun gisa ulertua, esperientzia zehatz guztien emaitza dena, eta, esperientzia horien bitartez, haren zentzua, haren esanahia eta haren gaitasun eraldatzailea lantzeko aukera dugularik.

— **Balio instrumentala: kulturak helburu ekonomiko, sozial edo ingurumenekoak lortzeko duen gaitasuna da.** Balio mota hori inpaktu ekonomikoko edo gizarte-itzulerako azterlanetan atzematen da normalean, non kulturaren inbertitzearen garrantzia dokumentatzen den, haren esternalitateak edo gaitasun instrumentalak direla-eta.

— **Balio sozial partekatua: enpresek balioa sortzeko ezartzen dituzten lan-egitura, lan-metodo eta lan-prozesuekin du zerikusia.** Sortzen (edo desegiten) da, herritarrekin harremanetan jartzeko moduaren arabera; lanerako jarrera eta jardunbideen arabera da. Erakunde publiko batek ondasun publikoak lor ditzake, hala nola herritarren artean elkarrekiko konfiantza eta errespetua sortzea, eremu publikoa hobetzea eta soziabilitaterako eta esperientzia partekatuz gozatzeko testuinguru bat ematea

Hortaz, balio sozialaren kontzeptua bi modutara uler daiteke: lehen irakurketa baten arabera, kultura-jardunbideak esternalitate gisa sorrarazten duen inpaktua litzateke, eta inpaktu sozialari, itzulera sozialari eta balio instrumental sozialari buruzko azterketetan hartzen da kontuan. Bestea, berriz, sistemikoagoa da, eta kultura-esperientzien berezko balio-kontzeptu batetik abiatzen da, ezagutza eta esperientzia esanguratsuak sortzeko duen gaitasunari lotuta, gainera, esternalitate positiboak dakartzatenak ekonomiaren, gizartearen, ingurumenaren edo osasunaren alorretan, eta muga argirik gabeko jardun-esparru batean gertatzen direnak; logika publikoa, pribatua eta komunitarioa elkarrekin bizi dira esparru horretan, eta, ikuspegi instituzionaletik konplexua izanik, egiteko eta elkarri laguntzeko modu berriak behar izaten dira. Azken ikuspegi horretan kokatu nahi izan dugu balio sozialaren kontzeptua, ikerketa hau egiteko garaian².

2. Kulturaren balio publikoaren ereduaren sakontzeko, Behatokiaren azterlana kontsulta daiteke, aldezturik aipatu duguna.

2. SEKTOREA TESTUINGURUAN

Kaleko arteak kreaio eszenikoak direla esan dezakegu, espazio publikoan antzezteko asmatu direnak. Horrek esan nahi du kode propio bat dutela, tokiak eta publikoarekin ezartzen den harreman motak baldintzatua.

Oso kontzeptu irekia da, sozialetik artistikoraino herritarren problematikak adierazteko askotariko proposamenak biltzen dituena, jendaurrean antzezten diren hainbat antzerki-diziplinaren bitartez bideratzen direnak.

Herri-artearen alderdirik tradizionalenari lotzen zaizkio. Herri-psikologiarekin uztartzen dira, eta iruditeria kolektiboaren ideia, premia eta irudi horiek antolatzen dituzte teknika espresiboa eta edertasuna aplikatuz. Hurbiltasunetik gauzak kontatzeko eta adierazteko premiatik sortzen dira.

2.1. Bilakaerari begirada bat


Kaleko arteak demokraziaren hasieran hasi ziren EAEn, 70eko hamarkadaren amaieran eta 80koaren hasieran. 80ko hamarkadan sekulako goraldia ezagutu zuten, eta hainbat proposamen nabarmendu ziren; 90eko hamarkadan, aldiz, gelditze moduko bat gertatu zen, eta mende berriarekin batera berriz ere gora egin zuten. 40 urtean kaleko arteak testuinguru sozialaren erritmoan bilakatu dira, eta aitortza eta garrantzi soziala duten konpainia eta festival berriak sortu dira.

Artekaleko kide diren konpainien artean, ibilbide luzeko proiektu historikoak daukagu, eta beste proiektu berriago batzuk ere bai, bereziki azken hamarkadan azaldu direnak. Konpainien bostena baino gehiago etapa berri horretan sortu ziren (% 23,1); laurden bat 2000ko hamarkadan hasi ziren (% 26,9), baina gehienak berriagoak dira, 2010etik aurrera sortu baitziren (% 38,5). 90eko hamarkada motelagoa izan zen, konpainia berrien sorkuntzari dagokionez.

Elkartea osatzen duten festibalei dagokienez, bi berriak dira (2017), eta gainerakoek 15 urtetik gorako antzinatasuna metatzen dute (bat 2006koa da, bi 2000koak, eta azken bat 1995ekoa).

Kultura-adierazpen guztiak bezala, kaleko arteak aldaketa sozialen ispilu dira. 70eko hamarkadaren amaieran, errebindikatiboa eta eduki politiko-sozialak ziren nagusi. Adierazpenei bide emateko gune bat ziren, dokumentu-antzerki bat, publikoa harriduratik eta *happening-etik* kontzientziatu nahi zuena. Parte hartzeko antzerki bat zela esan dezakegu.

1. grafikoa. Konpainien banaketa, sortu ziren hamarkadaren arabera




Horrelako proposamen artistiko mamitsu horiek desagertuz joan dira estetikaren eta bisualaren mesedetan, baita dantzaren loraldiaren eraginez ere, mendea aldatzearekin batera. Proposamena edozein izanik ere, eszenaratzeko garaian kontatzera bultzatzen duen eragile bat izaten da beti, baina hala eta guztiz ere, denborarekin ikuskizunak testuingurua gaineratik kentzen joan dira, gizartean nagusi diren irudiari, gorputzari eta mugimenduari tokia egiteko.

Itxuraldatze horretan, Frantziako zirku dramatizatuaren eragina ere nabari da, bere traman hainbat diziplina biltzen dituena, hala nola akrobazia, dantza, edo musika, eta zirkuko osagaien, paraden eta elementu tekniko sofistikatu eta preziosisten presentziak ere zerikusia izan du horretan. Gero eta zailagoa da diziplina puruak aurkitzea; nahasteko eta konbinatzeko joera nagusitzen ari da. "Kaleko arteen" kontzeptua erabiltzen da gaur "kaleko antzerkiaren" ordeaz, aldaketa horien erakusgarri.

Eta Artekalako konpainien arte-diziplinetan ere nabari da bilakaera hori. Kontuan hartu behar da produkzio guztia ez dela kalerako sortu, eta kaleko ikuskizunak aretorako sortutako ikuskizunekin uztartzen direla normalean. Ikuskizun batek bertsio desberdinak ere izan ditzake, bata aretorako eta bestea kalerako pentsatuak.

Konpainia gehienek antzerkian dihardute (% 38,5), eta, salbuespen bat edo beste, konpainia horiek dira ibilbide luzeena egin dutenak. Diziplina anitzekoen garrantzia ere kontuan hartzekoa da (% 30,8). Gainerako % 30a dantza- eta zirku-konpainien artean banatzen da.

2. grafikoa. Konpainien banaketa arte-diziplinaren arabera



Bilakaera hori festibaletan ere nabarmentzen da. Programazio askotarikoagoa dute, segmentatuagoa, hasiera batean jomugan zuten familia-publikoarengandik haratago doazen proposamenekin. Denborarekin ikuskizunak finduz joan dira, kalitateari garrantzi handiagoa emanez: lehen formatu handikoak eta kalejirak ziren nagusi; orain, berriz, bisualetik eta soinetatik haratago doazen proposamenak aurkezten dira, dramaturgia gehiagorekin, istorio batekin eta narratibarekin. Hizkuntza berriak daude, pixkanaka hazi direnak programazio heterogeneoagoen eta ikuskizunen teknifikazio-maila handiagoren eskutik.

Festibalek harrera ona izaten dute, eta arte horiekin interesatutako publiko bat erakartzen dute, konpainiak ezagutzeaz gain, gaian aditua den eta programazioaren espazioak bilatzen dituen publiko bat. Elkarren artean harremana dute, programazioak koordinatzen dituzte, ikuskizunak produzitzen edo koproduzitzen dituzte, eta biran dauden ikuskizunak ekartzeko ardura partekatzen dute.

2.2. Sektoreari begirada bat


Kaleko arteen **sektorea** aipatzen dugunean, sortzeaz eta produzitzeaz arduratzen diren hainbat konpainiaz, krazio horiek saltzen dituzten banatzaileez, eta haiek kontratatzen eta ematen dituzten programatzaileez ari gara. Produkzioarekin eta banaketarekin zerikusia duten eginkizunak agente pribatuen eskutik betetzen dira, zenbait figura juridiko desberdinekin; programazioa, berriz, publikoa da funtsean, eta udalek —sarritan jaietako edo udako programazioez arduratzen direnak, kaleko programazio espezifikoak ere badauden arren— zein festival espezializatu publikoek hartzen dute beren gain.

Aretoko arte eszenikoek ez bezala, EAEn kaleak ez dauka sare espezifikorik edo zirkuiturik, baina festival espezializatuek gora egin dute eta garrantzia hartu dute azken urteotan, kaleko arteen agente kontratatzaile garrantzitsu eta erakusleho nagusietako bat bihurtuta.

Tipologia horiek guztiak presentzia dute Artekalen, eta hori indargune bat da elkartearentzat. Elkarte berean biltzeak elkar ezagutzea errazten du, lanerako darabiltzaten logikak hobeto ulertzen laguntzen du, eta baterako proiektuak sustatzeko harremanak ahalbidetzen ditu.


Aztertutako konpainiek (26) Autonomoen forma juridikoa hartzen dute nagusiki (% 42). Jarraian, kultura-elkartek datoz (% 23), sozietate mugatuak (% 19) eta kooperatibak (% 16).

3. grafikoa. Konpainien banaketa pertsona juridiko motaren arabera



Batez beste, konpainiek **urtean ikuskizun bat** produzitzeko gaitasuna dute, gutxi gorabehera, beren ibilbide osoa aintzat hartuz.

4. grafikoa. Konpainien banaketa, urte bakoitzean batez beste produzitutako ikuskizunen arabera



Konpainia guztiek **362 ikuskizun produzitu dituzte** guztira, beren ibilbide historiko osoak kontuan hartzen baditugu:

- Erdia gutxi gorabehera kalean eskaintzeko sortu dira, eta beste erdia areto batean emateko.
- Gainera, konpainien % 84,6k publiko guztietarako ikuskizunak produzitu dituzte, % 50k helduentzat eta % 19,2k haurrentzat.

Inkestan parte hartu duten festibalen ezaugarriari dagokienez, honako hauek nabarmendu behar dira:


- Guztiak udalen eskutik antolatu dira.
- Diziplina anitzekoak dira. Ia guztiek oinarrizko ardatz bat partekatzen dute: antzerkia, dantza eta zirkua; hortik abiatuta, txotxongiloak, clowna, musika edo magia eranstean dute, kasuan kasu. Ikuskizun gehienak publiko guztietarako dira.
- **87 edizio** dira guztira, eta **kaleko 1.917 ikuskizun programatu dira**.

Agian banaketa da kate-mailarik ahulena, funtsezko pieza bat bada ere. Arte eszenikoen alorrean konpainiak dira normalean ardura hori hartzen dutenak, eta EAEko sareak, salbuespen batzuk gorabehera, ahula izaki, ez du banatzaile ugari izateko biderik ematen. Horrek guztiak zerikusia izan dezake gabezia horretan. Nolanahi ere, produzitzen dena programatzeko ardura duenari ezagutzera emateko zubi-lan hori ezinbestekoa da noski, ez soilik merkatu-edo negozio-terminoetan, baita lanbidea duin bihurtu beharrari dagokionez ere. Banatzaile batek bakarrik erantzun dio inkestari, eta horregatik daturik aurkeztea ezinezkoa da.

2.2.1 Jarduera: produkzioa eta programazioa

2019 eta 2018 alderatzen baditugu, produzitutako ikuskizunek behera egin zuten, baina ustiatuek, aldiz, gora: produzitutako ikuskizunak 31ik 26ra jaitsi ziren, eta ustiatuak 85tik 98ra igo, hain zuzen.

5. grafikoa. 2018an eta 2019an konpainiek produzitutako eta ustiatutako ikuskizunak, guztira




Horrek esan nahi du 2018. urtean 1,28 ikuskizun produzitu zirela, eta 1 pasatxo 2019an, zehazkiago, 1,03. Ustiatutako ikuskizunen batezbestekoa, berriz, 3,27 izan zen 2018an, eta 3,77 2019an.

Litekeena da produkzioa jomugan duen laguntza-eredua egotea urteko dinamika horren atzean. Izan ere, elkarrizketetan maiz aipatu da etengabe berritzeko fenomeno baten aurrean gaudela, laguntzak eskuratu ahal izateko beharrezkoa delako ikuskizun berriak asmatzea, eta dinamika horrek errepikatzeke nolabaiteko joera dakarrela ere azpimarratu da.

Aztertutako bi urteren artean, produkzio berrien garrantzia ustiatutako ikuskizunen aldean jartzen badugu, ehuneko hamar puntuko aldea dagoela ohartzen gara: % 36,5 2018an eta % 26,5 2019an, hurrenez hurren. Kulturaren Euskal Behatokiaren Arteei eta Kultura Industriei buruzko Estatistikaren emaitzekin konparatuz gero, produkzio eszenikoaren jardueraren berrikuntzaren adierazle hori antzeko parametroetan dago: produkzioaren % 30 kreatio berriak dira, gutxi gorabehera.

6. grafikoa. Konpainiaren ikuskizunak eta produkzioaren berrikuntza 2018an eta 2019an




Kaleko arteetako konpainiek urtean 1.200 emanaldi batu dituzte guztira, gutxi gorabehera (1.181 emanaldi 2018an eta 1.231 2019an), hazkundea % 4 izanik. Batez beste, 13 emanaldi egin dituzte ustiatutako ikuskizun bakoitzeko, Kulturaren Euskal Behatokiaren Arteei eta Kultura Industriei buruzko estatistikak erakutsitako datuen gainetik pixka bat, 2017rako datua ustiatutako ikuskizun bakoitzeko 11,1 emanaldi izanik.

Konpainia bakoitzeko urteko emanaldiei dagokienez, batezbestekoa 45 emanaldi pasatxo izan zen. Kasu horretan, Arteei eta Kultura Industriei buruzko Estatistikaren datuen arabera, 2017an 53,7 emanaldi izan ziren, batez beste, arte eszenikoen konpainia guztiak aintzat hartuta.

Nolanahi ere, kontuan hartu behar da batezbestekoak direla. Errealitatea askotarikoa da, eta oso errealitate desberdinak bizi dira elkarrekin; urtean emanaldi ugari dituzten konpainia handiak; urteko jarduera nolabait egonkortua duten konpainia kontsolidatuak; arrisku-proiektu esperimentalak, ospe ona izan arren batezbestekoaren azpiko emanaldi kopurua dutenak; eta urtean emanaldi gutxi batzuk baino ez dituzten proiektu txikiak.




7. grafikoa. Konpainien emanaldiak 2018an eta 2019an




Hamar emanalditik sei Euskadin egin ziren. 2019an emanaldiek gora egin zuten, bai Euskadin bai atzerrian, Estatuko gainerako eskualdeetan atzerakada txiki bat izan zelarik.

8. grafikoa. 2018an eta 2019an konpainiek egindako emanaldiak guztira, lurraldearen arabera




Bilakaera positiboa askoz ere nabariagoa izan da ikusleen artean, 2018tik 2019ra bitarte nabarmen egin duelako hobera, 280 mila izatetik 360 mila izatera igaroz zehazkiago, igoera % 29 izanik. Horrek esan nahi du batez beste 236 ikusle izan zirela emanaldi bakoitzeko 2018an, eta 293 2019an.

9. grafikoa. Konpainien ikusleak 2018an eta 2019an



Festibalei dagokienez, logikoa denez emanaldiak ahalbidetzeaz arduratzen dira funtsean, baina ikuskizunen produkzioan edo koprodukzioan ere parte hartzen dute. Produkzioak pixka bat gora egin du, eta emanaldi kopuruari eutsi zaio. Nabarmentzekoa da festival batek 130 ikuskizun eman zituela, eta, horrenbestez, aztertutako emaitzen erdia.

10. grafikoa. 2018an eta 2019an festibalek produzitutako eta emandako ikuskizunak, guztira



Konpainien % 20 atzerritik datoz, % 40 euskal konpainiak dira, eta % 40 Estatuko gainerako eskualdeetakoak. Proportzio horiek egonkor mantendu dira bi urteetan.




11. grafikoa. Emanaldi kopuru osoa 2018an eta 2019an, konpainien jatorrizko lurraldearen arabera




Toki-merkatuak euskal konpainientzat duen garrantzia eta festibalek merkatu horretan duten pisua zehatz-mehatz aztertuz gero, festibal horiek euskal konpainien emandalien % 12 direla ohartzen gara. Hortaz, toki-produkzioaren erakusleihu dira batik bat, baina udalak dira bezero nagusiak, jaietako edo udako programazioen edo kaleko arteei buruzko espezifikoen bitartez.

12. grafikoa. Emanaldiak festibaletan ehunekotan, 2018an eta 2019an konpainiak Euskadin guztira egindako emandalien gainean



Ikusle kopurua 100.000 ikusletik gora izan zen urtean, 2018tik 2019ra bitarte % 10eko igoera izanik, gutxi gorabehera. Nabarmenezkoa da emandali bakoitzeko ikusleen batezbestekoak konpainien batezbestekoa bikoizten duela.

13. grafikoa. Festibaletako ikusleak 2018an eta 2019an



Nabarmenezkoa da festibalek kaleko arteetarako publikoak sortzeko betetzen duten zeregina. Beren arduradunek programazioak konfiguratzeko dituzte hainbat faktore kontuan hartuz, hala nola kalitatea, emandaliak hartuko dituzten tokiak, aurrekontua, formatu, diziplina eta proposamen arriskutsuen arteko oreka, edo deskribatzeko zailagoak badira ere garrantzi ukazina duten beste batzuk, giroa edo testuingurua adibidez. Ikusi dugunez, toki-konpainiei ematen zaie lehentasuna. Alabaina, zalantzarik gabe, beren publikoa da alderdirik garrantzitsuenetako bat. Adin eta publikoen aniztasuna hartzen da kontuan, haurrentzako eta helduentzako ikuskizunak programatzeko dira. Izan ere, publiko leial bat dago, gogoko dituen ikuskizunak zein diren badakiena eta horien bila dabilena. Kaleko arteen publiko espezifikoa bat, harritzea bilatzen duena eta festibaletan mobilizatzen dena, emandali bakoitzera bertaratzen direnen datuek erakusten dutenez.


Publikoak sortzeko zeregin horretan, konpainiek bitartekotza-proiektuak eramaten dituzte aurrera. Emanaldiez aparte, publikoaren bitartekotzako 15 proiektu ere detektatu dira, konpainietako 7ren artean. Mota guztietako proiektuak antolatzen dituzte proportzio berdinean, puntualak zein egonkorrak, nola helduentzat hala gazte eta haurrentzat. Aurrekontuak oso tarte zabalean mugitzen dira: 500 euroekin hasi eta 45.000 euroko aurrekontuetaraino.

2.2.2 Enplegua

Osaerari dagokionez, gehienak konpainia txikiak dira, eta 2 kidez osatuta egotea izaten da ohikoena. Batek baino gehiagok bikoteen konpainiak deitzen diete. Bi konpainia handi nabarmentzen dira, guztira 34 kide dauzkatenak. Enplegu guztiaren % 36 dira.

Datu horiek bat datoz elkarrizketetan bildutakoekin, eta, horien arabera, konpainia kopuruak behera egin du urteen poderioz, haien hauskortasun eta ezegonkortasunaren, eta sektorearen egiturazko gabezien erakusgarri. Areago, bada txikiagoak ez ezik, kontserbadoreagoak ere badirela esaten duenik.

14. grafikoa. Konpainien banaketa kide kopuruaren arabera




Konpainiei lotutako langile gehienak langile artistikoak dira, eta koadro artistiko eta administratiboan presentzia nabarmen txikiagoa da, biak ere antzeko mailetan.

15. grafikoa. 2018an eta 2019an konpainiei lotutako langileak, funtzioaren arabera



Guztira, konpainietan 182 langile zeuden 2018an eta 190 2019an, egonkorak edo behin-behinekoak (azken horien multzoa pixka bat handiagoa da, bereziki 2019an, urte horretan hazkundera handiagoa izan delako).

16. grafikoa. Langile kopurua konpainietan 2018an eta 2019an, egonkortasunaren edo behin-behinekotasunaren arabera




Festival edo jaialdiei lotutako langile gehienak teknikariak dira. Funtzioaren arabera langile kopurua egonkor mantentzen da. 111 pertsona dira guztira, 18,5 festival bakoitzeko.




Festivalak ekitaldi iragankorrek dira, kasu honetan kalean antolatuak, eta, festivalen berezko ezaugarri horiez gainera, ikuskizun publikoei eta aisia-jardueri buruzko 10/2015 Legearen eskakizunak hartu behar dira kontuan, premia teknikoei, egiturak homologatzeko logistikari eta emanaldi bakoitzean instalazio-muntaketa ziurtatzeari buruzkoak. Gai horiek guztiek baldintzatzen dituzte zeregin horiek aurrera eramateko arduradunen ezaugarriak: gehienak teknikariak dira, eta behin-behinekoak.

17. grafikoa. 2018an eta 2019an festibalei lotutako langileak funtzioaren arabera



Behin-behineko langileak egonkorren ia bikoitza dira. Guztira 72 pertsona izan dira, 2018an eta 2019an. Batez beste, 12 pertsona festival bakoitzeko.

18. grafikoa. Langile kopurua festibaletan 2018an eta 2019an, egonkortasunaren edo behin-behinekotasunaren arabera




2.2.3 Dimentsio ekonomikoa

Inkestako datuak aztertzen hasi baino lehen, komenigarria litzateke kaleko arteekin zerikusia duten bi gauza kontuan hartzea sektoreko dimentsio ekonomikoan duten eragina aintzat hartuta: batetik, aplikatzekoa den BEZ mota, konpainien sostenguan eragiten duena, eta, bestetik, ikuskizun publikoei eta aisia-jardueri buruzko 10/2015 Legearen betekizunak, kaleko ikuskizunen kontratazioak garestitzen dituztenak, berekin dakartzaten kostu erantsien ondorioz.

Ordaintzen duten BEZak zerikusia dauka konpainiaren formula juridikoarekin eta egindako jarduerarekin. BEZ murriztua soil-soilik aplikatzen zaio pertsona fisikoak diren interprete, artista, zuzendari eta teknikarien jarduerari. Musika-edo arte-emanaldiak edo lan teknikoek izan behar dute zerbitzuaren eta fakturaren xede nagusia.

Inkestako emaitzek aditzera ematen dutenez, konpainien ia erdiak % 21eko zerga ordaintzen du. Bosten batek % 21eko eta % 10eko zerga konbinatzen du, jardueraren arabera, beste bosten batek % 10, eta, azkenik, konpainien % 15 salbuetsita daude.


19. grafikoa. Konpainien banaketa BEZ motaren arabera






Diru-sarreraren bolumenari dagokionez, konpainiek 2,7 milioi euro bildu dituzte guztira 2018an, eta 2,9 milioi 2019an. Bi ekitaldietan, 300.000 euroko balantze positiboa lortu dute, gutxi gorabehera.

20. grafikoa. Konpainien diru-sarrera eta gastuen batura 2018an eta 2019an



Zenbaki global horiek gorabehera, egoera indibidualak oso desberdinak dira elkarren artean, ondoko grafikoa ikus daitekeenez.

21. grafikoa. Konpainien banaketa batez besteko diru-sarreraren arabera, 2018ko eta 2019ko datuekin




*2 konpainiatarako daturik ez dago, eta grafikotik kanpo geratu dira.

Egoeretan heterogeneotasuna da nagusi: konpainia batzuk txikiak dira benetan, eta beste batzuk oso handiak.

- Zazpi konpainiak 100.000 eurotik gorako diru-sarrerak dituzte batez beste, diru-sarrera guztien baturaren % 77 izanik.
- Bi konpainiak soilik fakturazioaren herena baino gehiago berenganatzen dute, 400.000 eurotik gora izanik.

Festibaletan, gastuak askoz ere handiagoak dira diru-sarrerak baino; azken horiek 185.600 euro izan ziren 2018an eta 214.753 euro 2019an, bilakaera positiboa izanik. Kontuan hartu beharra dago kalean leihatilako diru-sarrerarik ez dagoela, eta beraz, diru-sarrerak beste erakunde publiko batzuen ekarpenetatik datozela, edota lor litezkeen babes txikien eskutik.

22. grafikoa. Festibalen diru-sarrera eta gastuen batura, 2018an eta 2019an (eurotan)





3.KALEKO ARTEEN EZAUGARRIAK ETA BALIO SOZIALA

Kaleko arteek bereizgarri jakin batzuk dauzkate, beste proposamen eszeniko batzuetatik desberdintzen dituztenak eta berezi egiten dituztenak. Hain zuzen ere, atal honetan ezaugarri horiek nabarmendu nahi ditugu, elkarrizketetan parte hartu duten pertsonak azpimarratu dituztenak. Eta, are garrantzitsuagoa dena, publikoak bereziki baloratu dituenak.

Ezaugarri horiek hiru ardatzetan sailka ditzakegu: kaleko arteek kode propio bat izatea ahalbidetzen duten ezaugarriak; antzezteko berezko tokia espazio publikoa izatea, horrek dakartzan inplikazioekin; eta publikoarekin ezartzen den harreman berezia.

3.1. Beren kodeari dagokionez

Arte bizi bat da, orainean, berehalakoan eta bat-batekoan bizi dena. Ziurgabetasunetik elikatzen da. Kaleak bere bizitza dauka: gertatzen den guztia ikuskizunari erantzen zaio. Edozein gertakarik badu bere eragina: euria edo bero egin dezake, eguna zein gaua izan daiteke, haur baten negarrak, moto baten burrunba... Emanaldi bakoitza bakarra da. Une oro inprobisatzen da gertatzen den guztiarekin, errealitatea kreazioari erantsiz. Joan-etorriko jolas bat dago, errealaren eta fikzioaren artean.

Antzezten duenaren ikuspegitik, ingurune bizia da, sarerik gabea, adrenalina hutsa. Emanaldi bakoitza *performance* bat da, interakzio bat, eta funtsezkoa da artistak ustekabearen aurrean erreakzionatzeko eta erantzuteko gai izatea.

Ikuskizuna itxita egon arren, kalean arreta lausotu egiten da. Areto barruan, aldiz, kontrola handiagoa da, alde aurretik ezarritako arau batzuekin. Ingurune neutroagoa, abstraktuagoa eta linealagoa da. Kalea justu kontrakoa da, barreiatuagoa eta zatikatuagoa beti. Trama beste era batera kontaktzen da, modu zuzenago, bat-batekoago, errazago eta biziago batean. Publikoa ikuskizunean sartu eta irten daiteke, eta pasarte bakar batekin geratu. Horregatik hizki larriekin idazten da, maiuskulak erabiliz ikuslearen arreta erakartzeko. Une bakoitzak interesa izan behar du. Ikuskizunak publikoa harrapatzen ahalegindu behar du.

Istorioek erritmoa izan behar dute, eta aretoan baino fisikoagoak izaten dira normalean. Sorpresarekin jokatzen da. Kalea freskotasuna da, energia, bizitasuna. Beti desberdina izaki, irekia da. Ikuskizuna publikoaren erreakzioaren mendean dago, eta ikusle bakoitzak bere aletxo jartzen du.

Beste dohain bat: arte eszeniko desberdinetako diziplinak konektatzeko gaitasuna. Antzerkiaren, dantzaren, zirkuaren eta musikaren arteko diziplinartekotasun horri esker, ikerketa eta esperimenezko bide argiagoak ireki ditzake, beste diziplina eszeniko estankokoago batzuek baino.

Aretoaren kodearekin zerikusirik ez du, hori beste klabe batzuei jarraikiz sortu behar delako espresuki. 360 graduko formatu bat da, laugarren hormarako tokirik uzten ez duena. Horregatik, aretoko kreazioak kalera egokitzeko saiok ez dute beti arrakasta izaten. Elkarteko zenbait konpainiak aretorako proposamenak ere lantzen dituzte, edota aretorako zein kalerako izan daitezkeen ikuskizunak, baina kalerako propio sortuak izanaren garrantzia azpimarratzen da. Horregatik, elkarrizketetan sarri aipatu dute kalean antzerkia egitea eta kaleko antzerkia egitea ez direla gauza bera.

3.2. Espazio publikoari dagokionez

Balio soziala duten bi elementu nabarmendu behar dira, kaleko arteak antzetzeko berezko tokiaren ondorio direnak: batetik, espazio publikoaren ideia-deribatuak, eta, bestetik, irisgarritasuna.

Kaleko arteek espazio publikoa nahita okupatzen dutela esan dezakegu. Espazioaren jabeak horrek errazago egiten du espazio hori erreibindikatzea, eta arreta komunaren, publikoaren eta kolektiboaren garrantzian jartzea. Gure bizi-ingurunea beste klabe batzuekin interpretatzeko bidea irekitzen digute, espazio publikoa ulertzeko, sentitzeko eta bizitzeko modua aldatuz. Guztiona den espazioan elkarrekin egotea da. Eraldatzaileak dira, eguneroko bizitza eta jarduera aldarazten duten heinean. Eta komunitarioak ere badira: taldean ikusten, bizitzen eta gozatzen dira; ikusleek ikusten dute elkar, eta denek parte hartzen dute.

Kaleko arteek inguruneari balio handiago bat ematen laguntzen dute, konbentzionalak, ezagunak eta ohikoak ez diren edota periferian dauden espazioak balioan jartzeko lagungarri dira. Ildo horretan, zentralitate berriak sortzeko duten gaitasuna da espazioari dagokionez nabarmendu beharreko balioetako bat. Festibal batzuek auzo edo herri txikietan egiten dute programazioa.

Espazioa laua izatea izan ohi da betekizun bakarra. Site-specific kreaioak ere badaude, lokalizazio jakin batzuen neurria pentsatuak, eta bereziki festibalen esparruan eraten direnak, baina ikuskizunak ahalik eta unibertsalenak izaten dira normalean. Horrek ez du esan nahi edonola eskain daitezkeenik. Aldez aurreko fitxa teknikoaren garrantzia azpimarratzen da, ikuskizuna modulatzeko baliagarria den heinean. Espazioaren ikuskera alda daiteke, baina betiere ekintza artistikoari eutsiz. Baldintza teknikoak betetzen ez direnean, sentsazioa negatiboa da guztiontzat. Ildo horretan, programatzaileek kaleko arteen espezifikotasunak ezagutzea eta horiekiko sentsibilitatea erakustea funtsezkoa da, eta beste diziplina batzuen aldean baldintza duin berdinetan tratatzea ere bai, proposamenen kalitatea bermatu nahi badugu. Azpimarratzekoa da kalea ere mimatu beharra dagoela, antzetzeko tokia den heinean.

Kontuan hartzekoa da, halaber, kaleko arteak estu lotuta daudela urte-sasoiko programazio publikoarekin. Hori haien kaltetan doa,

urtarokotasunaren mendetasun handia duten neurrian. Udan, aire zabalean eta jaietan antolatuta ohi direnez, dibertsioarekin eta gozamenarekin lotzen dira, bisualari eta ludikoari lehentasuna emanez. Festaren ideiak kolektiboarekin ere badauka lotura estu bat.

Irisgarritasunari dagokionez, kalea da toki publiko irisgarri nagusia. Horixe da haren ezaugarri bereizgarriena. Jarrera-aldaketa bat dago gainerako proposamen artistikoen aldean: kaleko arteak jendearen tokian daude, jendearen bila doaz, jendearen bizitzaren erdigunea den tokira, eta ez alderantziz. Publikoa ez doa haien bila, bidean aurkitzen ditu. Haiekin topo egiten du.

Kalean ez dago inolako oztoporik: ez fisikorik, ez ekonomikorik, ez psikologikorik, ezta hezkuntza edo adinari lotutakorik ere. Ez da garestia, ez da zaila, ez da zertan planifikatu, ez dute alde aurreko prestakuntzarik edo itzulpenik eskatzen. Edozein pertsonaren eskura daude. Interes berezirik ere ez dute eskatzen. Horregatik, jendea prestuago dago probatzeko eta seduzitzen uzteko.

3.3. Publikoari dagokionez

Kaleko arteak unibertsalak dira, irekiak, berdintasunezkoak eta pluralak. Publiko guztietarako dira. Belaunaldi eta klase desberdinetako jendea biltzeko eta nahasteko gai dira. Kultura-proposamen gutxi egin dezakete horrelakorik. Antzoki eta bestelako kultura-jardueratara hurbiltzen ez direnak ere harrapatzen ditu. Mota guztietako pertsonengana hurbiltze horrek publikoak sortzeko zeregina ere eskatzen du, bestela antzerkiarekin, dantzarekin, zirkuarekin edo antzeko proposamen artistikoekin harremanik izango ez lukeen jendea dela aintzat hartuta.

Aretoan publikoa babestuago dago, itundutako hitzordu arautu bat da, joateko borondatek abiatu eta sarrera bat ordaintzea eskatzen duena. Publikoa isildu egiten da, argiak itzali eta oihala altxatzen denean. Arretagune bat dago, eta ikusleek argi dute fikzio baten aurrean daudela.

Kaleko formatua eta planteamendua irekiagoak dira. Beste hurbiltze modu bat da, eta hurbiltasun fisiko funtsezkoa da seduzio-joko horretan. Begirada gehiago daude antzezleen eta publikoaren artean. Ikusleen aurpegi eta begiak ikusgai daude, eta publikoak jabetzen da horretaz. Publikoak badaki, alde aurretik, kontuan hartuko dutela, eta gelditzeko edo joateko erabakia har dezake, alde hori funtsezkoa da.



Publikoa askotarikoa da, heterogenoa: pasieran doan jendea, hurrekin doazenak, haurrak zure ondoan jartzen dituzten gurasoak, ikuskizuna ikusten duten gurasoak, edota ikuskizuna ikustera doazen taldeak. Elkarriketetan aipatu dutenez, badago publiko espezifiko bat, aretora ez doan arren, kaleko ikuskizunak bilatzen dituen. Horrelako zaleak festibalekin lotzen dira normalean.

Publikoei dagokienez, beste zerbait ere nabarmendu behar da: hirietan homogeenagoa da, eta herri txikietan, berriz, heterogeenagoa, herri guztia bertaratzen da. Ildo horretan, askorik programatzen ez duten herri txikietan sorpresa-faktoreari eusten zaio oraindik, beste ingurune batzuetan ez bezala.

Kaleko arteak feed-back ugariko kultura-proposamenak dira. Publikoarekin aldeztu aurretik ezer ere hitzartu ez denez, harrapatu egin behar da, interpelatu, ikuskizunarekin bat egin dezala saiatu. Gero modulatu egiten da, gertatzen denaren arabera. Etengabeko interakzio horretara gonbidatzen da, eta, ikuskizunak aurrera egin ahala, interakzio hori aldatzen da. Dinamika horrek oso energia berezi bat sortzen du, eta jendeak asko estimatzen du hori.



4. PANDEMIAREN INPAKTUA

Ikerketa hau 2019aren amaieran hasi zen, Artekalerekiko lankidetzaren adostu zenean, eta pandemiak nabarmen baldintzatu du gure lanaren garapena. Inkestaren landa-lana 2020ko martxoan burutu zen, jardueraren gelditze orokorrarekin batera, eta ikerketa kualitatiboa urte-amaierarako atzeratu zen, kaleko ohiko denboraldia errespetatzeko helburuarekin.

Testuinguru horretan, elkarteko agenteak elkarriketatzeko nahitaz hitz egin beharra zegoen pandemiak sektorearen jardueran izan duen eraginaren inguruan. 2020an eragin itzela izan du, eta oraindik ere ziurgabetasuna da nagusi; horrek guztiak sektorearen etorkizuneko garapena baldintzatzen du nabarmen, beste hainbat kultura-eremuren eta jarduera-sektoreen kasuan bezalaxe.

Atal honetan gogoeta egin nahi dugu, pandemiatik eratorritako egoerak kaleko arteetan zenbaterainoko eragina izan duen ikusteko. Jakina denez, deseskalatzearekin batera hainbat neurri ezarri ziren: distantzia sozialaren nahitazkotasuna, musukoen erabilera, harreman eta interakzio pertsonalak eta mugikortasuna mugatzea, etab.

Bestetik, araua ezarri eta betetzeko, behar-beharrezkoa da programatzaileek antolamenduko, jarraipeneko eta kontrolako neurriak zorrotz betetzea, eta planifikazioa behar bezala gauzatzea, jardueretara bertaratzen direnentzat. Hori guztia berria da guztiontzat, nahiz eta, pandemiako urte baten ondoren, pixkanaka barneratzen ari garen. Alabaina, jarraibide horietako asko kontraesanean daude kaleko arteen berezko formatu eta kodearekin. Zorionez, kalea hor dugu, oraindik ere. Bere mugak baditu, baina printzipioz behintzat ez dira hain muga murriztaileak, espazio itxietan ezarritakoen aldean.

Pandemiaren inpaktua hizpide hartzen denean, alderdi negatiboekin lotzen da automatikoki. Nolanahi ere, gauza positibo batzuk ere azpimarratu behar dira, areago kaleko arteen balio sozialari buruzko azterlan batez ari garela aintzat hartuta. Horietako askok ikusleen portaerarekin eta erreakzioarekin dute zerikusia, baita agente programatzaile eta konpainiek, murrizketak altxatu eta berehala, jarduera suspertzeko egindako esfortzu eta inplikazioarekin ere.

Testuinguru berriaren elementu horiek guztiek eragina dute kaleko jardueraren garapenean. Hori da jarraian bi ikuspuntutatik aztertuko duguna: eskaintzan eragiten duten aldagaiak eta eskariarekin zerikusia dutenak.

4.1. Eskaintzaren aldagaiak

Kaleko emanaldiak aurrera eramateko espazioa eta baldintzak nola aldatu diren galdetuta, batzuek erantzun argia eman dute: argia eta esparru naturala mantendu dira, baina gainerako guztia aldatu da, jarduera garatzeko bete beharreko baldintzen eraginez.

Pandemiak agindutako murrizketak zenbait faktoreen arabera aldatzen dira: aire zabaleko tokiak edo toki itxiak diren, pertsonen kontzentrazioak eragiteko aukerarik ba ote dagoen, eta mugimenduen askatasuna errazten duten edo ez aintzat hartuta. Kalea espazio irekia da, eta horregatik abantaila batzuk dauzka esparru itxien aldean; agindutako gainerako baldintzek, ordea, bete-betean eragiten dute kaleko arteen berezko kodean. Beren funtsa eta bilgarria eraldatu egiten dira nabarmen.

Espazio fisikoa eta mugitzeko askatasuna

Jarduera berriz ere hasteko aukerak handiagoak dira aire zabalean bestelako esparruetan baino. Ildo horretan, kaleko arteek zubi moduan jardun dute kultura-jarduera nolabait suspertzeko bidean. 2020ko udan, kaleko programazioa esperimantazio- eta ikaskuntza-esparru bat izan zen konpainientzat eta agente programatzaileentzat.

Hala ere, zirkunstantzien eraginez, oztopoak sortu dira oztoporik ez zegoen tokian. Publikoak eserita egon behar du, distantzia gordez, alde aurretik gonbidapena jasota edo erreserba eginda bertaratu behar da ekitaldira, espazioa mugatuta dago eta aforoak mugatuak dira. Kanean ateak jarri dira, nolabait. Ibiltaritza izan da kaltetuena, jende askoren elkargune izan daitezkeen ikuskizunak debekatu baitira.

Konpainiek diote antzerkia **kalean** egiten ari direla, italiar erako antzezpenen bitartez, nahiz eta aire zabalean izan. Orain, kalea "minieszenatokiz" bete da. Beren funtsari eusten ahalegintzeko, emanaldi horietako batzuk zera eskatzen ari dira, publikoa 360 gradutan antolatzeko.

Hori kudeatzea ez da lan erraza programatzailearen ikuspegitik, ez bakarrik eskatzen duen plangintza eta antolamenduagatik, baita sartu ezinean kanpoan geratzen direnak ere hartu behar direlako kontuan, gauza guztiz berria kaleko arteen esparruan. Zenbaitetan, toki urrunagoetan, patioetan, lorategi publikoetan edota auzoetan programatzea erabaki dute. Eta, festibaletako batean, hirian barrena edo hurbileko udalerrietan banatutako espazio itxi kontrolagarriagoetara jo izan da. Hala, murrizketek deszentralizazio-dinamika bat eragin dute espazioen erabileran.

Interakzioa eta parte-hartzea

Bat-batekotasuna, berehalakotasuna eta arriskua galdu dira. Horrek erabateko aldaketa suposatzen du publikoarekiko harremanetan. Kontrola da nagusi, interakzioa eta parte-hartzea oso urriak dira, konektatzeko aukeraren kaltetan. Maskarillek galarazten dute publikoaren erreakzioa ikustea, begiradak geratzen dira soilik.

Ikuskizunek aldatu egin behar izan dute, urrunagoak, hotzagoak eta aseptikoagoak dira orain. Testuinguru berriaren eragina negatiboa izaten ari da. Emozioa galdu da. Norbaitek egoera negargarria dela ere esan du.

Alderdi artistikoan, publikoarekin interaktuatzeko ezintasuna eramangaitza da. Askoz ere zailagoa da kaleko arteen bereizgarri diren hurbiltasuna eta konplizitatea sortzea. Elementu ludikoak, sorpresa eta interaktibitatea sakrifikatu dira, eta ekintza artistikoak aberastasuna galdu du, jendea horretaz kontziente ez bada ere.

Produkzioa eta programazioa

Konpainien esanetan, zeuzkaten ikuskizunak moldatzen ari dira, biziraun ahal izateko Nolanahi ere, litekeena da bizitzen ari garen zailtasunek kontatzeko premia biziberritzea, pizgarri baten antzera jardunez bizitzen ari garen hori kontatzeko erreakzioa sortuz. Aurreikustekoa da etorkizunari begira gaiak eta formatuak aldatzea.

Programatzaileek diote konpainiei laguntzeko asmoarekin programatu dutela, eta kanean zerbait eskaini ahal izateko. Ikuspegi teknikitik, programatzeko baldintzen eraginez, produkzioa garestiagoa da ikuskizuna baino. Antolamendu- eta gestio-betekizunek ahalegin handiago bat eskatzen dute salmentei, espazioaren antolamenduari eta publikoaren kudeaketari dagokienez. Teknikariak gainesplotatuta daude. Kontuan hartzekoa da galdua zen ohitura bat berreskuratu dela: antolaketa-lanetan boluntarioekin aritzea.

Azkenik, baloratu beharreko kudeaketa-alderdi batek publikoaren kontrolarekin dauka zerikusia: gaur egun gonbidapenen salmentei buruzko informazioa dugu, eta horrek aukera ematen du lehen ez geneuzkan hainbat datu aztertzeko.

4.2. Eskariaren aldagaiak

Kalea aitzindaria izan zen kultura-jarduera berrabiatzeko garaian. Eta publikoaren erreakzioa, berriz, zoragarria.

Mugei erantzuna

Pandemiaren eraginez, aisia-aukerak aldatu dira, baita jardueretara bertaratzeko modua ere. Publikoak kontziente izan behar du joan egin behar duela, planifikatu beharra daukala, eta protokoloek ezarritako arauak betetzeko prest egon behar du. Kaleko publikoaren artean, saltoa are handiagoa da beste kasu batzuetan baino, abantaila batekin: jarduera aire zabalean egiten da.

Hasiera batean zalantzak zeuden, publikoa kultura-jardueretara bertaratuko ote zen, kutsatzeko beldurrez, baina azkenean oso erantzun positiboa eman du.

Onartu beharra dago aukerak murriztu egin direla, baina oro har, publikoaren erantzuna oso ona izan da. Haserre-erreakzio bakarrek zerikusi handiagoa izan dute ikuskizunetara bertaratzeko ezintasunarekin, aforo mugatuen ondorioz, kontrolaren igoerarekin baino.

Publikoa hor dago, beste era batera hori bai, baina hor segitzen du.

Erreakzio positiboak

Kaleko programazioari 2020ko udaran ekin zitzaien berriz ere, hasierako konfinamenduaren ostean irten ahal izateak suposatu zuen askapenarekin batera. Kultura-jarduerari esker, pertsonak ihes egiteko aukera izan zuten, oraindik jasaten ditugun zirkunstantzia zailak ahaztuta.

Kaleko proposamenak lagungarri izan dira, espazio publikoa berreskuratzeko, irten eta partekatze eta jai-giroa berriz sentitzeko ahaleginean. Elkarrizketatu guztiek azpimarratu dute inoiz baino esker on gehiago jaso dituztela ikuskizunaren amaieran.

Aurreko atalean bat-batekotasunaren eta freskototasunaren galera aipatu da, baina gauza batzuk irabazi direla ere esan dezakegu. Covidaren ondoko arauak esker, publikoa gehiago inplikatzeko da, arreta eta errespetu handiagoarekin. Protokoloak gauza berri batzuen mesedetan joan dira; esaterako, artistei harrera eta ongietorria egiten zaie, eta ikusleei artistekin hitz egiten uzten zaie, ikuskizunaren bitxikeriei erantzuna eman diezaieten.

Publikoarekiko harremanetan bi sentsazio jaso dituzte:

- **Esker ona** Egiten ausartzeagatik. Beharrezkoa dela esaten diete. Berotasun handiagoa nabari da txaloetan, intentsitate handiagoa eskerrak ematean.
- **Kontzientzia** eta parte hartzeko **gogoa**. Parte hartzeko oso modu emozionala da. Nolabaiteko inertzia zuen kontsumo-ekintza bat izatetik erresistentzia-ekintza bat izatera igaro da. Interes eta konpromiso handia erakusten dute. Arreta eskatzen duten ikuskizunek gora egin dute. Kontzientzia handiagoa dago ekintza eszeniko batek suposatzen duenaren inguruan.

5. ETORKIZUNEN ERONKAK

Ez dugu txosten hau itxi nahi kaleko arteek etorkizun hurbilean izango duten erroka nagusiak identifikatu gabe. Atzetik datozen kontuak dira, balio-kate osoan eragina duten kontuak: prestakuntza, produkzio-eredua, banaketa, programazioa eta publikoak. Zuzeneko beste arte batzuekin gertatu den bezala, pandemiak bidegurutze batean kokatu ditu. Elkarrizketetan aipatu dutenez, "covidaren ondoko kaleko arteen" ideia arazo bat da, kaleko arteen jatorrasuna sakrifikatzen prest ote dauden galderari erantzun beharrean aurkitzen direlako. Benetakotasun hori ez galtzarren zer egin litekeen erantzun beharko litzateke.

Balio-katearen logikari jarraikiz, elkarrizketetan hausnarketa egin dute funtsezko gai hauen inguruan.

— Prestakuntza

Kaleko arteen dramaturgia-premiei eta prestakuntzak ez dute behar adinako laguntzarik jasotzen. Horixe da gabeziarik premiazkoenetako bat. Lanbideak ez dauka tradizioz, ez dago prestakuntza espezifikorik, birmoldaketa bat izan da batez ere. Zehazki, kaleko jardura horiek antolatzen koadro teknikoak falta dira, eta goi-mailako prestakuntzarik ere ez dago. Adibide positibo gisa, zirkua aipatzen da, profesionalizatu ahala aldatzen joan dena.

Elkargune bat sortzea proposatzen da, kaleko arteen prestakuntza, sorkuntza eta emanaldietarako erreferentzia-zentroa izango litzatekeen espazio fisiko bat.

— Sorkuntza eta produkzioa

Indarrean dagoen laguntza-ereduaren arabera, produkzio berriei laguntzen zaie, eta, horren eraginez, merkaturik ez duen produktu gehiegi sortzen da. Behartutako produkzio-dinamika hori kalitatearen kaltetan doa. Konpainiak sortzen jarraitzen behartuta daude, baina proiektuorik ez dute. Eredu-aldaketa bat behar da epe ertainera eta luzera begira, egituren profesionalizazioaren eta jarraitutasunaren alde eginez hausnarketari eta anbizioari lekua egingo dieten proposamenen bitartez, kaleko arteetarako laguntza espezifikoa ezarri kalean adituak diren profesionalen eskutik, balioespen egokiak egiteko eta proiektuak zorrotztasunez ebaluatzen gai izango direnak. Ildo horretan, zirkua eta dantza dira laguntza-politika espezifikoen garrantziaren adierazgarri argia

— Banaketa

Agente programatzaileei kaleko ikuskizunen berri emango dien banaketa-kanalik ez dago. Behin eta berriz aipatzen da erakundeek ez dakitela ezer kaleko arteen espezifikotasunen inguruan, festival espezializatuak alde batera utzita. Adibide grafiko bat ematearren, oraindik ikus dezakegu antzezleek hurbilen dagoen tabernara jo behar izatea aldatzera, aldagarik ez dutelako. Ildo horretan, merkaturik mugatua izaki eta programazio publikoari lotuta egonik, proposamenak antzetzeko kondizioz onenak eta eskaintza zabaldu eta ezagutzera emateko lana ezinbestekotzat jotzen da.



— Programazioa

Kaleko arteak programazio publikoari lotuta daude. Administrazioek ikusgarritasuna bilatzen dute, eta konpainia txikiak haien gustuetara egokitzen dira, modalitate ikusgarriari lehentasuna emanaz testuaren, umorearen edo hain ikusgarriak ez diren produkzioen kaltetan. Oreka bat bultzatu beharko litzateke, kalean antzez daitezkeen arte guztiei babesa emanaz. Moda eta joeretatik haratago lagundu beharko litzateke.

EAEri dagokionez, beste erkidego batzuetan baino gehiago programatzen da, gizartean ongi sustraitutako eta errotutako festibalak daude, eta azken urte honetan konpainiei laguntzeko egindako ahalegina aitortzen da.

Sare eta zirkuituei dagokienez, bi jarrera daude: batetik, EAEn zirkuitu egonkor bat eskatzen da, proposamen arriskutsuak bilduko dituen; bestetik, lehendik zirkuituak badaude, estatuan dantza garaikidearekin gertatzen den bezala, ohartarazten da horrek handizka erosteko eta kontzentratzeko fenomenoak errazten duela, eta hori desoreka-iturri izan litekeela sektorearentzat.

— Publikoak

Jendeak kaleko arteak ezagutzea eta balioestea lortu nahi badugu, publikoa da bereziki zaindu beharreko alderdietako bat. Kontuan hartuta kalean egoteak lehen harremana errazten duela, baita kultura-proposamenetan parte hartzeko ohiturarik ez dutenentzat ere, bitartekotza beharrezko zubia da kaleko arteekin ustekabeen topatzen diren behin-behineko publikoen, eta festibal baten esparruan zein jaietako edo udako programazioan kaleko arteak espresuki bilatzen dituzten zaleen artean. Inkestan nabarmendu dutenez, konpainia batzuek bitartekotza-proiektuak dauzkate abian. Festibalei dagokienez, bitartekotza lantzen jarraitu beharra dago, baliabideak produkziara eta programaziora bideratzen direlako nagusiki. Horrek ez du esan nahi bitartekotza-esperientzia nabarmenik ez dagoenik.

Ikuspegi sistemikoago batetik, non konpainiak, programazioa, sektoreari laguntzeko politikak eta elkartearen lana inplikatu behar diren, honako lerro hauek lantzea izan behar dugu erronka:

- Produkzioen eta biren kalitatea indartzea, egiten dutena balioan jartzeko helburuarekin. Zuzkidura ekonomikoak hobetzeko eta epaimahaien independentzia lortzeko lanetan ari dira dagoeneko. Garrantzitsua da zirkuitu egonkorak sortzea, modalitateen arteko orekari eutsiz eta proposamen esperimentalenei tokia eginez.
- Sektorea duintzearen alde egitea. Inplikaturako agente, konpainia, programatzaile eta politikari guztien eginkizuna da hori, eta lana garatzen den baldintzetan du eragina, kontratuekin hasi eta antzezpenarako tokia hautatu eta gainerako arte eszenikoen maila berean aitortzeraino.
- Elkarleen lanaren garrantzia azpimarratzea, batetik, erakundeei dauden gabeziak helarazi eta ikusarazteko, eta, aldi berean, sektore sendo baten kontsolidazioa bultzatzeko. Kaleko arteek beren bereizgarriak dituzte. Artekalen soslai desberdinetako agenteak elkartuta egotea indargunetzat jotzen da, elkar ezagutzeko eta elkartasunez eta enpatiaz ahaleginak batzeko lagungarria den heinean.



**Kulturaren
Euskal Behatokia**
Observatorio Vasco
de la Cultura



artekale
Euskal Herriko Kale Arteen Elkarte
Asociación de Artes de Calle del País Vasco



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGUISTICA